BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2728

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 9koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, deialdia zabaltzen duena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatu dituen Hirigintzako XXXIX. (39) Ikastaroa (Bilbon egitekoa, 2014-2015) eta Hirigintzako XL. (40) ikastaroa (Donostian egitekoa, 2014-2015) egiteko. Aldi berean, deialdia egiten da ikastaro horietan parte hartzeko, 5 matrikula-beka eskatzeko.

«Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos» sortzeko, abian jartzeko eta antolatzeko den martxoaren 11ko 80/1986 Dekretuaren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen menpe geratu zen Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola (LHIEE). Lantzen dituen gaiak direla-eta, Lurralde Antolamenduaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren bultzada zuzena jasotzen du, eta hirigintzako ikastaroak antolatzen ditu 1992. urtea geroztik, arlo horietan jarduten duten langile teknikoak prestatzeko eta birziklatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hirigintza-araubidea nabarmen aldatu da, autonomia-erkidegoak berak eta estatuko administrazioak eman dituzten arauen ondorioz.

Bi ikastaroetan zehar aztertzen dira arau horiek guztiak, baina agerikoa da araudien aldaketek behartu egiten gaituztela egitarauak eta haien edukiak etengabe berritzera.

Dena dela, hirigintza eta lurralde-antolamendua ez dira arau-multzo soil bat, biztanleriak habitat eta lurralde jakin batean dituen garapena eta bilakaera jakiteko ezagupenen eta horri buruzko tekniken multzoa baizik. Arrazoi horrek bultzatuta, hirigintzako, lurralde-antolamenduko eta ingurumeneko paradigma edo eredu berriak aztertuko ditugu.

Horrenbestez, garrantzi handikoa da, krisi-garaiotan hain justu, herri honen hirigintza eratzen duten proiektuak eta arauak behar bezala aztertzeko jakintzak izatea, eta, horren bidez, egun dauden arazoak eta hirigintzaren etorkizuneko aurreikuspenak aztertzea.

Nabarmendu behar da Bilboko XXXIX. (39) eta Donostiako XL. (40) ikastaro horiek hirigintzaren, lurralde-antolamenduaren eta ingurumenaren arloan lan egiten duten funtzionario, profesional eta akademikoz osatutako aditu-talde batek emango dituela. Ikastaroa hirigintza-jarduera horiek egin edo horien berri izan behar duten administrazioko eta sektore pribatuko eragile tekniko eta juridikoentzat, eta hirigintzaren alorrean lan egin nahi duten profesionalentzat eta graduatuentzat prestatu da, hirigintzaren teoria eta haren alderdi praktikoak ezagutu ditzaten.

Bestalde, aukerak eta ekonomiaren alorreko gorabeherak direla-eta, Donostian egingo den Hirigintzako XL. (40) ikastaroko moduluak aurrera eramateko gutxieneko ikasle-kopurua ezarri behar da.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

Honen bidez, hauetarako deia egiten da: XXXIX. Hirigintza Ikastaroa, Bilbon egingo dena 2014-2015 ikasturtean, eta XL. Hirigintza Ikastaroa, Donostian egingo dena 2014-2015 ikasturtean (biak ala biak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolak antolatuta). Aldi berean, ikastaro horietan matrikula egiteko 5 beka eskatzeko deialdia egiten da.

2. artikulua.– Oinarriak, XXXIX. (39.) Hirigintza Ikastaroarenak (Bilbao, 2014-2015) eta XL. (40) Hirigintza Ikastaroarenak (Donostia, 2014-2015), eta matrikula ordaintzeko iragarritako 5 bekenak.

Ikastaroak eta 5 matrikula-bekak arautuko dituzten oinarri bereziak finkatuko dira (I. Eranskina), zehazki, honako hauek arautuko dituztenak: XXXIX. (39.) Hirigintza Ikastaroa (Bilbao, 2014-2015) eta XL. (40.) Hirigintza Ikastaroa (Donostia, 2014-2015), eta ikastaro osoaren matrikula (2.674) ordaintzeko iragarritako 5 bekak: 3, XXXIX. Hirigintza Ikastarorako» (Bilbao, 2014-2015), eta 2, XL. Hirigintza Ikastarorako (Donostia, 2014-2015). Beka horien xedea da baliabide ekonomiko murritzak dituzten graduatuei parte hartzeko aukera bermatzea. Horretara bideratuko den zenbatekoa 8.022 eurokoa da XXXIX. Hirigintza Ikastarorako (Bilbao, 2014-2015), eta 5.348 eurokoa XL. Hirigintza Ikastarorako (Donostia, 2014-2015). Ikastaroaren matrikularen zenbatekoa berdintzea denez beka hauen xedea, 2.674 euro joko du beka bakoitzak.

3. artikulua.– Ikastaro osoa edo modulu independenteak deialdi bakarrean edo urteko deialdi batean baino gehiagotan egitea.

XXXIX. (39.) Hirigintza Ikastaroak (Bilbao, 2014-2015) eta XL. (40.) Hirigintza Ikastaroak (Donostia, 2014-2015) osagai hauek dituzte: sei ikasketa-modulu teoriko-praktiko egitea (400 ordu) –aprobetxamendu-egiaztagiria ematen da–, bakarkako ikerketa-lana edo «Hirigintzako Goi Ikastaroa» egitea eta aukerako praktikak erakunde edo enpresatan (300 ordu, gutxi gorabehera). Ikasleak betekizun guztiak gaindituz gero, IVAPek «Hirigintza Diploma» ematen du.

Eskatzaileek badute izena ematea 6 ikasketa-moduluak osorik –ikastaro oso gisa– egiteko deialdi honetan. Beste aukera bat ere badute: modulu batean edo batzuetan matrikulatzea deialdi honetan, eta ikastaroaren eskakizun guztiak betez joatea hurrengo deialdi edo urte akademikoetan.

4 artikulua.– Eskaerak aurkezteko epeak, matrikula-beketarako, ikastaro osorako eta moduluetarako.

Eskaerak aurkezteko epea irekita geratuko da ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu osteko lehen egunean, modalitate guztietarako: matrikula-bekak, ikastaro osoa eta/edo moduluak.

Eskaerak aurkezteko epeak bukatuko dira honako egunetan:

Matrikula-bekak eskatzeko epea 2014ko irailaren 10ean amaituko da.

Ikastaro osoa amaituko da 2014ko irailaren 19an.

I. modulua: 2014ko irailaren 25a.

II. modulua: 2014ko urriaren 24a.

III. modulua: 2015eko urtarrilaren 14a.

IV. modulua: 2015eko otsailaren 17a.

V. modulua: 2015eko apirilaren 10a.

VI. modulua: 2015eko maiatzaren 18a.

5. artikulua.– Hirigintzako XL. (40) Ikastaroan (Donostia-2014-2015) moduluak antolatzeko gutxieneko eskaera-kopurua.

Donostian egingo den Hirigintzako XL. (40) Ikastaroaren kasuan, modulu teoriko bakoitzean gutxienez 10 ikaslek parte hartu beharko dute, modulua egin dadin.

Moduluren baterako eskaera-kopurua nahikoa ez bada modulu hori Donostian egiteko, Hirigintzako XL. (40) Ikastaro osoko ikasleek nahiz moduluka matrikulatuta daudenek Bilbon egin dezakete modulu hori, egoki baderitzote.

Horretarako, lehenik eta behin, Lhiee-IVAPek, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 4 egun naturalen barruan, posta elektronikoz eta telefonoz jakinaraziko die ikasleei modulua Donostian egin daitekeela edo ezin daitekeela egin, eta, azken kasu horretan, modulu horretarako matrikula Bilboko ikastarora aldatzeko aukera. Bigarrenik, ikasleek konfirmatu egin beharko dute, eta Lhiee-IVAPi posta elektronikoz edo idatziz jakinarazi, dagokion modulua Bilbon egingo duten ala ez. Konfirmatu ere, dagokion modulua hasi baino 7 egun natural lehenago, gutxienez. Bestela, fakturatu egingo dira matrikulak, non eta ezinbesteko kasurik egiaztatzen ez den.

Ikastaro osoa aukeratu duten ikasleei dagokienez, Bilbora joan nahi ez badute, ikastaro osorako matrikularen ordainketa itzuliko zaie, hala badagokio, eta ordurako eginak dituzten eta egiteko dituzten modulu solteak, berriz, fakturatu egingo zaizkie.

6. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskatzaileek –ikasturte osoaren, moduluen zein beken eskatzaileek– IV. eranskinean jasotako eskaera normalizatua bete beharko dute, eta deialdian zehaztutako dokumentuekin bat, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendari txit prestuari helarazi, erakunde horren mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolaren egoitzara. Helbidea: Recalde zumarkalea, 18 - 1 / 48009 - Bilbao. Telefonoa: 94 403 16 00/04. Faxa: 94 403 16 01. www.ivap.euskadi.net. Helbide elektronikoa: evetu@ivap.es

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatu dituen ikastaroen deialdiaren testua eta eskabide-agiriak lortzeko interneteko helbidea: http://www.ivap.euskadi.net

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aipatutako edozein modutan aurkez daitezke eskabideak.

Eusko Jaurlaritzako langileek, sare korporatiboko kide badira, Jakina/IVAP/Prestakuntza ikastaroak automatrikulazioaren bidez egingo dute izen-ematea.

Toki- eta foru-administrazioetako langileek, berriz, Prestakuntzako koordinatzailearen bidez egin dezakete izen-ematea. Hark emango die onespena eskabideei eta hark igorriko du eskabide-zerrenda IVAPera, ohiko prozeduraren bidez. Prestakuntzako koordinatzailerik ez duten instituzio eta/edo erakunde publikoen kasuan, interesdunak berak helaraz dezake kasuan kasuko eskabidea, IV. eranskinaren arabera, eskabide-orria Lhiee-IVAPera bidaliz.

Era berean, profesionalek eta graduatu-ondokoek eskabidea egin dezakete, Lhiee-IVAPera igorriz.

Bajarik gertatuz gero, interesdunak edo hezkuntza-koordinatzaileek baja hori jakinarazi eta egiaztatu behar diote Lhieeri, dagokion modulua hasi baino 7 egun natural lehenago, gutxienez, non eta ezinbesteko kasurik egiaztatzen ez den. Bestela, fakturatu egingo dira matrikulak.

Matrikularen kobrantzan, abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da (haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendua onartzen da).

7. artikulua.– Modulu guztiak osorik egiteko epeak, «Hirigintza Diploma» eskuratzeko modulu teoriko-praktikoren bat, ikerketa-lanen bat edo hirigintzari buruzko goi-mailako ikastaroren bat egitea falta duten ikasleentzat.

1992az geroztik, ikastaroa «Hirigintza-zuzenbideari buruzko ikastaroa» deitzen zenetik, 2005-2006ko deialdira bitartean (Hirigintzako XXI. eta XXII. Ikastaroa), biak barne, egindako edozein ediziotan matrikulatutako lehengo ikasleek 2011-2012ko edizioa (Hirigintzako XXXIII. eta XXXIV. Ikastaroa) baino ez dute izan geratzen zitzaizkien modulu teoriko praktikoak gainditzeko, bakarkako ikerketa-lana aurkezteko edo Hirigintzako Goi Mailako Ikastaroa eginez Hirigintzako Diploma lortzeko.

2011-2012ko deialdia amaitzean eskakizun guztiak bete ez badira, deialdi honetan ikasle sartu berritzat hartuko dira, eta modulu guztiak berriz egin beharko dituzte, deialdiko eskakizunak betetzeaz gain.

8. artikulua.– Ikasle ohien eguneraketa.

Azken urteotan araudietan izan diren aldaketa handiak direla eta –EAEan zein Estatuan–, 2005-2006 ikasturtea baino lehen ikastaroa edo moduluren bat egin eta Hirigintza Diploma duten ikasle ohiek aukera izango dute ezagutzak eguneratzeko, ikasle berriak izango balira bezala, moduluak eginez.

9. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetako parte-hartzaileen datu pertsonalak «Euskal Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak» izeneko fitxategian sartuko dira, behar den moduan tratatzeko eta, hartara, kudeatu ahal izateko. Fitxategi horrek datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak xedatzen duena bete beharko du. Datuen kontra agertzeko, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea baliatu nahi duten pertsonek IVAPen Koordinazio eta Kudeaketako Idazkaritzara jo dezakete.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke edota, bestela, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari. Errekurtsoari buruz, berariaz, ebazpenik ematen ez bada, ukatutzat joko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 9a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

I. ERANSKINA

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (IVAP) MENDE DAGOEN LURRALDE ETA HIRI IKASKETETARAKO EUSKAL ESKOLAK (LHIEE) BILBON (2014-2015) ANTOLATUTAKO HIRIGINTZAKO XXXIX. (39) IKASTARORAKO ETA DONOSTIAN (2014-2015) ANTOLATUTAKO HIRIGINTZAKO XL (40) IKASTARORAKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK. ALDI BEREAN, IKASTARO HORIETAN PARTE HARTZEKO, 5 MATRIKULA-BEKA ESKATZEKO DEIALDIA EGITEN DA.

Lehenengoa.– Helburuak.

Hiriko eta lurraldeko arazoak arautzen dituzten lege-arloko teknikak aztertzea. Hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko oinarrizko ezagupenak aztertzea, bai teorian eta bai praktikan. Funtzionarioak, profesionalak eta graduatu-ondokoak ondo prestatzea, lurraldeko nahiz hiriko plangintzaren oinarri diren araubide juridikoak eta teknikoak eta bestelako gaiak hobeto jakin ditzaten. Hirigintzan eta lurralde-antolamenduan erabiltzen den metodologia aztertzea, ikasleei baliabide teknikoak eta juridikoak hobeto ezagutzen lagunduko baitie. EAEn eragina duten hirigintza- zein lurralde-antolamenduko arauak eta Ingurumeneko araudia ezagutzea eta aztertzea.

Bigarrena.– Onuradunak.

Izendapen politikoko karguentzat, zuzendarientzat, A taldeko enplegatu publikoentzat, eta hirigintzaren eta/edo lurralde-antolamenduaren alorrean lan egiten duten B taldeko langileentzat. Profesionalentzat, baldin eta goi-mailako unibertsitate-tituluren bat badute, hirigintzarekin eta/edo lurralde-antolamenduarekin lotuta. Leku batzuk gordeko dira goi-mailako unibertsitate-graduatuentzat, lizentziatuentzat, ingeniarientzat eta arkitektoentzat. Azken multzo horretakoek hirigintzaren alorrean egin behar dute lan.

Lehentasuna izango dute, lehendabizi, izendapen politikoko karguek, zuzendariek, A taldeko enplegatu publikoek eta, azkenik, B taldekoek. Horien atzetik hartuko dira aurretiaz (betiere, 2006ko deialdiaz geroztik) moduluak eginak dituzten eskatzaileak, eta, horien artean, modulu gehien egin dituztenak. Azkenik, ikastaroa lehen aldiz egiten duten profesional eta graduatuak sartu ahalko dira.

Espainiar unibertsitate-titulu ofizialen bat eduki behar da, edota Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko goi-mailako erakunde batek emandako titulua, titulua jasotako herrialdean master, gradu edo graduatu-ondoko ikasketetan sartzea ahalbidetzen duena. Halaber, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrukoak ez diren heziketa-sistemen araberako tituludunak ere onartu ahal izango dira, haien tituluak homologatu beharrik izan gabe, baldin eta Unibertsitateak aurrez konprobatzen badu espainiar unibertsitate-titulu ofizialei dagokien prestakuntza maila baliokidea egiaztatzen dutela eta titulua jaso duten herrialdean gradu-ondoko ikasketetan sartzea ahalbidetzen dutela, unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ikastaroaren egitura akademikoa.

Ikuspegi akademikotik, Hirigintzako XXXIX (39) Ikastaroa (Bilbon egitekoa, 2014-2015) eta Hirigintzako XL (40) ikastaroa (Donostian egitekoa, 2014-2015) ikastaroek honako osagai hauek dituzte:

1) Sei eskola-modulu teoriko-praktiko, nahitaez egin beharrekoak.

2) Praktikak, aukerakoak.

3) Norberaren azken ikerlana edo hirigintzako goi-mailako ikastaroa, nahitaez egitekoa.

4) Hirigintzako Diploma.

Moduluaren zk.	Izena	Iraupena	Matrikula euro
I.	Oinarrizko administrazio-zuzenbidea	68 ordu	442
II.	Lurralde-antolamenduari buruzko araudia eta sektoreko eta ingurumenari buruzko legeria	68 ordu	442
III.	Hirigintzako antolamendua eta plangintza	68 ordu	442
IV.	Hirigintza-antolamendua egikaritzea (Hirigintza-kudeaketa)	84 ordu	642
V.	Hirigintza-antolamenduaren bermea eta babesa (Hirigintza-diziplina)	64 ordu	442
VI.	Lanbide batean jarduteko proiektua	48 ordu	370
	Teoria- eta praktika-ikastaro osoaren iraupena, eskola-ordutan	400 ordu	2.674
VII.	Erakundeetako edo enpresetako praktikak (aukerakoak) , diruz lagunduta.	300 ordu	0
VIII.	Norberaren ikerlana edo Hirigintzako goi-mailako ikastaroa (nahitaez egitekoa)		
	Hirigintzako Diploma		

1.– 6 eskola-modulu teoriko-praktiko, nahitaez egin beharrekoak.

Ezinbestekoa da sei eskola-moduluak egitea (400 ordu). Lehenengo bost moduluak teoriko-praktikoak dira, eta, modulu bakoitza bukatzean, azterketa edo banakako ebaluazioa egiten da, ikasleak gainditu beharrekoa.

Seigarren modulua, berriz, praktikoa da; hura bukatzean, taldeka egindako lanaren ebaluazioa egiten da, eta hori ere gainditu beharra dago. Modulu hori egin ahal izateko, ikasleak gainditua izan beharko ditu, gutxienez, Hirigintzako antolamendua eta plangintza III. modulua eta Hirigintza-antolamendua egikaritzea (Hirigintza-kudeaketa) IV. modulua. Kasu guztietan, modulu bakoitza ongi baliatu dela ziurtatzeko agiria eskuratzeko, beharrezkoa da modulu bakoitzari dagokion azterketa gainditu izana, moduluen ikastorduen % 80an eskolan egon izana eta dagokion matrikula ordaindu izana.

2.– Praktikak, aukerakoak.

Ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero. Onuradunak Hirigintzako XXXIX (39) Ikastaroko (Bilbon egitekoa, 2014-2015) eta Hirigintzako XL (40) ikastaroko (Donostian egitekoa, 2014-2015) ikasleak izango dira, baldin eta deialdi hauetako edo aurreko deialdietako sei modulu gainditu badituzte eta hirigintza-arloko hamabi hiletik gorako lanbide-eskarmenturik ez badute, edo deialdi honetako moduluak egin badituzte.

Praktikak egiteko ikasleak aukeratzerakoan, sei moduluetan guztira batu dituzten puntuaziorik onenak hartuko dira aintzakotzat. Dena dela, praktikak egin ahal izateko, erakundeek edota enpresek praktikako langileak izateko eskabidea aurkeztu beharko dute aurrena. Aurreko deialdian betebehar guztiak bete arren haurdunaldia zela-eta praktikak egin ezin izan zituzten ikasleek ere izango dute aukera oraingo deialdi honetan egiteko.

Praktika-aldiak lau hilabeteko iraupena izango du, gutxi gorabehera, hau da, 300 ordu inguru (kodea: 2014-cu-37, Bilbao, eta 2014-cu-67, Donostia). Ikasleak hartzen dituen erakundeak eta/edo enpresak eta LHIEEk egingo dute praktika-aldien ebaluazioa. Praktikak egiteko esleipendun izan den ikasleak praktika horiek bukatzeko konpromisoa hartu behar du.

Ikasleei erakundeak edo enpresak esleitzeko, moduluetako azterketak balioestean eskuratu duten puntuazioa hartuko da aintzat.

Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen bat izan duten pertsona fisikoak ezin dira deialdi honetara aurkeztu, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko

4/2005 Legean sartutako debekuak eta zehazpenak ere barruan direla.

IVAPeko zuzendariak emandako ebazpen bidez arautuko dira praktikak, eta bide hori erabiliko da haien esleipena egiteko. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak Ebazpena emango du, eta han finkatuko du zein enpresak edo/eta erakundek hartuko dituzten praktika-aldian ari diren pertsona horiek. Erakunde eta enpresa horiek eskabidea noiz egin duten, horren arabera izango da esleipena; horrez gain, kontuan hartuko da praktikak egin behar dituzten ikasleetatik sei moduluetan guztira puntuaziorik onenak batu dituztenek lehentasuna izango dutela. Berdinketarik badago, zozketa egingo da. Ebazpen horren berri emango da, dagokion jakinarazpena eginda.

3.– Norberaren azken ikerlana edo hirigintzako goi-mailako ikastaroa.

Ikastaroa osorik amaitzeko, ikasleek, sei modulu teoriko-praktikoak gainditu ondoren, ikerlan bat aurkeztu beharko dute, banaka (2014-cu-38, Bilbao, eta 2014-cu-68, Donostia), ikastaroari lotutako gai bati buruz, eta deialdi honetan edo hurrengo batean defendatu beharko dute. Hori dela eta, maiatzean, ikerketa-lana egiteko eskabidea aurkeztuko du, eta epaimahaiaren aurrean aurkeztuko du, abenduan edo hurrengo deialdi batean.

Nahi izanez gero, lan hori homologatu edo ordezkatu ahal izango da, urtero deituko duten hirigintzako goi-mailako ikastaroa eginez eta gainditu. Hori egin ahal izateko, ikasleek sei eskola-moduluak gainditu eduki behar dituzte; baita praktikak ere, halakorik egitea hautatu badute.

4.– Hirigintzako Diploma.

Sei eskola-moduluak gainditu, banakako ikerlana amaitu eta, hala behar denean, hirigintzako goi-mailako ikastaroa eta praktikak egin ondoren, ikasleak Hirigintzako Diploma jasoko du, eta diploma hori Hirigintzako Zuzenbideko Diplomarekin homologatuta egongo da.

Laugarrena.– Ikastaro osoa deialdi bakarrean edo bat baino gehiagotan egitea.

Aldi baterako, Hirigintzako XXXIX. (39) Ikastaroa (Bilbon egitekoa, 2014-2015) eta Hirigintzako eta/edo XL. (40) ikastaroa (Donostian egitekoa, 2014-2015) deialdi bakar baten barruan egin ahal izango dira oso-osorik edo hainbat deialditan moduluka, betiere ikastaroaren baldintzak beteta.

Kasu guztietan, bai modulu osoa eginda, bai eta moduluak banaka eginda ere, ikasleek 6 moduluak gainditu beharko dituzte (asistentzia eta ebaluazioa), ikerlana aurkeztu edo, hala behar denean, hirigintzako goi-mailako ikastaroa egin beharko dute, eta, aukeran izango dute (horrela hautatu badute) praktikak egitea eta gainditzea.

Bosgarrena.– Hirigintzako XXXIX. (39) Ikastaroa (Bilbon egitekoa, 2014-2015) eta Hirigintzako XL. (40) (Donostian egitekoa, 2014-2015) ikastaroen moduluak, helburuak, programa eta irakasleak.

I. modulua.– Oinarrizko Administrazio-Zuzenbidea (68 ordu).	
Helburu orokorrak	1.– Administrazio-zuzenbideko oinarrizko kontzeptuak aztertzea, hirigintza-alorra zuzentasunez lantzeko ezinbestekoak diren heinean. 2.– Gaia ulertzeko, hirigintzari buruzko terminologia adostu bat finkatzea. 3.– Teknikariei oinarri juridiko bat ematea, arauen garrantziaz jabetu daitezen eta haien tratamendu-moduaren berri izan dezaten. Juristek administrazio-zuzenbideak hirigintzaren jardun-esparruan duen aplikazioa gogoratu edo sakondu dezaten lortzea.
Ikasleen helburuak	1.– Administrazio-zuzenbideak oinarrian duen funtsezko araudia aztertzea. 2.– Herri-administrazioen antolaera eta funtzionamendua ezagutzea. 3.– Administrazio-erakundeen arteko eskuduntza-banaketa korapilatsua ulertzea, batez ere, Hirigintzari dagokionez.

I. modulua.– Oinarrizko Administrazio-Zuzenbidea (68 ordu).	
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	1.– Ezagutzak aplikatzeko gaitasuna, herritarren eta Administrazioaren betebeharrak ezagutzeko. 2.– Zuzenbide-testuak irakurtzeko eta interpretatzeko gaitasuna. 3.– Zuzenbide-testuak idazteko gaitasuna. 4.– Administrazio-prozeduren ezagutza, administrazio-ebazpenak onartzeko bide diren aldetik. 5.– Esku-hartzeko gaitasuna, informazioa jendaurrean jarri osteko helegiteen administrazio-izapideetan, bai eta errekurtsoetan eta erreklamazioetan ere.
Programa	– Herri-administrazioa eta administrazio-zuzenbidea. – Administrazio-prozedura erkidea eta hirigintza-zuzenbidea. – Hizkera juridikoa eta Planoak irakurtzea. – Ordenamendu juridikoa, herri-administrazioa eta administrazio-zuzenbidea. Administrazio-jarduera. – Herri-administrazioen araubide juridikoa. Toki-araubidearen erreforma. – Administrazio-prozedura. – Zehatzeko ahalmena. – Toki-araubidea. – Administrazio-kontratazioa. – Desjabetzea. – Administrazio-erantzukizuna. – Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. – Hainbat administrazio-arau aztertzea. – Praktikak.
Irakasleak	Angel Zurita Laguna (Bilboko udaleko letradua) eta M.ª Teresa Iribarren Goicoecheandia (Gipuzkoako Foru Aldundiko letradua) izango dira koordinatzaileak.

II. modulua.– Lurralde-Antolamenduari Buruzko Araudia, Eta Sektoreko eta Ingurumenari Buruzko Legeria (68 ordu).	
Helburu orokorrak	1.– Lurralde-antolamenduaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzea, eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegokoak, lurraldea egituratzen duten arauak baitira; hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak - LAA, eta haiek garatzeko tresnak (Lurralde Zatiko Planak – LZP eta Lurralde Plan Sektorialak – LPS). 2.– Udalerriz gaindiko eskala aztertzea, udal-eskumenak kaltetu gabe. 3.– Lurraren antolamendu fisikoa egitea lurraldearen antolamenduaren bidez. 4.– Diziplinako eredu berriak aztertzea: iraunkortasuna, plangintza estrategikoa eta lurraldeari buruz Europako eskalan hausnartzea. 5.– Lurralde-antolamenduaren egitura orokorra aztertzea, beste autonomia-erkidego batzuekiko azterketa konparatuaren bidez. 6.– Lurraldean eragina duten ingurumen-alderdi nagusiak aztertzea.
Ikasleen helburuak	a) Lurralde-proposamenen eta haiei lotutako tresnen ezagutza, EAEren eremuan. b) Lurraldearen, hirigintzaren, planeamenduaren eta udalez gaindiko planeamendu-prozeduretan baliatutako teknikak ezagutzea. c) Araudien artikulazio konplexua aztertzeko gaitasuna, Lurraldeari dagokionez; bai eta Administrazioen, herritarren eta proiektuen esku-hartzeari dagokionez ere.
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	1.– Ezagutzak eta ulertzeko gaitasuna, lurralde-antolakuntzaren arloari eta hark hirigintzan duen eraginari lotuta. 2.– Ezagutzak aplikatzeko gaitasuna, lana egitean zein defendatzean. 3.– Interpretatzeko eta erantzunkidetasunez taldean lan egiteko gaitasuna, proiektuak egitean. 4.– Aztertzeko, diseinatzeko eta kudeatzeko gaitasuna, gizartearekiko eta ingurumenarekiko ardura bere egiten duten proposamenetan.

II. modulua.– Lurralde-Antolamenduari Buruzko Araudia, Eta Sektoreko eta Ingurumenari Buruzko Legeria (68 ordu).	
Programa	– Lurralde-antolamendua. Eskala-aldaketa baten beharra. Kontzeptua. – Lurralde-antolamendua Europan. – Lurralde-antolamenduaren figurak Lurralde Antolamenduko 4/1990 Legearen arabera (LAL) – Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA). – Lurralde Plan Partzialak (LPP). – Lurralde Plan Sektorialak (LPS). – Lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduan eragina duten arau juridiko sektorialak, autonomia-erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta estatuko administrazioak emandakoak. – Ingurumen-alderdien ikuspegi orokorra. – Ingurumena eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa: Europako, Estatuko eta EAEko arauak, eta haiek lurralde-antolakuntzan eta planeamenduan duten eragina. – Ingurumena babesteko legedi orokorra. – Naturaren zaintzari buruzko legedia eta Komunitaterako interesa duten Guneei buruzkoa. – Urak, zarata, lurzoru kutsatuak, airea. – Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa lurralde-planeamenduan. – Planen eta programen ingurumen-inpaktuko ebaluazioa. – Garraioa eta iraunkortasuna. – Etxebizitza. – Kultura-ondarea. – Lurralde-antolamenduko beste esperientzia batzuk. – Praktikak
Irakasleak	Jesús M.ª Erquicia Olaciregui (Arkitektoa. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko zerbitzu-burua) eta Tomás Orallo (EHLAB-Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzorderako idazkaria) izango dira koordinatzaileak

III. modulua.– Hirigintzako Antolamendua eta Plangintza (68 ordu).	
Helburu orokorrak	1.– Planeamenduaren bilakaera nolakoa izan den jakitea, eta tresna hori aintzat hartzea, antolakuntzarako eta hirien eraikuntzarako tresna gisa. 2.– Hirigintzaren diziplinartekotasuna ulertzea, lurraldean eragiten duten politikak eta ekintzak uztartzeko esparru gisa. 3.– Udalerrien antolakuntza fisikoari heltzeko jarraibideak eta soluzioak ezagutzea. 4.– Planeamendua eta haren berezko arau-erregimena zehaztean kontuan hartu beharreko lege-esparrua ezagutzea. 5.– Planeamendu-tresnak, haien edukia eta izapidetzea ezagutzea, ikuspegi teorikotik zen jardunbide praktikotik. 6.– Hiria zer-nolako fenomenoa den eta zer konplexutasun duen ikasten hastea, kontuan hartuta, morfologiari edo funtzionaltasunari lotutako alderdiak ez ezik, lurralde-antolakuntzan eragiten duten gizarte- eta ekonomia-faktoreak, jardueren bideragarritasuna eta ekonomia- zein ingurumen-iraunkortasuna. 7.– Faktore horiek ulertzea eta hiria eratu eta egituratzean duten eragina aintzat hartzea. Hirien planeamendua egiteak gizarte osoarentzat eta gizabanakoentzat duen garrantziaz jabetzea. 8.– Antolakuntza aztertzea, egiturazkoa zein xehatua, bai eta lurzoruaren kalifikazioa eta sailkapena ere. Antolakuntzaren helburuak planteatzea, bai eta eremuen eta sektoreen banaketa ere. Planeamenduaren estandarrak aztertzea. Sistema orokorrak eta lokalak bereiztea.
Ikasleen helburuak	a) Hirigintza zer-nolako jarduera den jakitea, planeamenduari dagokionez. b) Hirigintzaren xedea zein den jakitea, lurraldean eragiten duten politikak eta ekintzak uztartzeko esparru den aldetik. c) Udalerrien antolakuntzan eragiten duten eragile publikoak zein pribatuak ezagutzea. d) Hirigintza-arloan aplikatzekoa den araudia ezagutzea, bai eta planeamendurako tresnak, haien edukia eta izapidetzea ere.
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	1.– Ikasitakoak aplikatzeko trebetasuna, bai eta hiri-planeamenduaren murgiltzekoa ere, administrazioan zein planeamenduaren diziplinarteko erredakzio taldeetan. 2.– Planeamenduak herritarrengan pizten duen interesa ezagutzea, bai eta herritarren eta Administrazioaren eskubideak, eginkizunak eta betebeharrak ere, hirigintzaren arloan.

III. modulua.– Hirigintzako Antolamendua eta Plangintza (68 ordu).	
Programa	– Hirigintzaren historia aurkeztea. Hiri-espazioaren antolakuntzaren ezaugarri adierazgarriak eta historikoak. – Antolakuntza fisikoa eta araubide juridikoa. Hirigintzaren printzipio nagusiak jasota 2/2006 Legean (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa), eta 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuan (ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duena). 8/2013 Legea, hirien berritzeari, birsortzeari eta eraberritzeari buruzkoa. – Hirigintzaren antolamendu-sistema. Hirigintzaren administrazio-agintea eta gaitasunak. Hirigintza-antolakuntza. Kontzeptuak. – Planeamendu-tresnak. – Egiturazko antolakuntza: xedapen orokorrak. Lurzoruaren kalifikazioa. – Hiri-bilakaeraren estrategia. Lurzoruaren sailkapena. – Egiturazko antolakuntza: xedapenak eta haien aplikazioa udalerri jakin batean. – Hiri-antolakuntza fisikoaren oinarrizko elementuak eta haien eragina hirien antolakuntzan eta forman. – Planak eta gainerako hiri-antolakuntzarako tresnak. Katalogoak. Adibideak: – Hiri-planeamendu iraunkorra. – Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren azterketa. – Hirigintza-planeamenduak berarekin dakartzan gizarte-aukerak. – Antolakuntza xehatuaren planeamendua. – Antolakuntza xehatua: xedapenak eta soluzioak. Kontzeptuak, hiri-morfologia eta eraikuntza-tipoak. Xedapenak eta arau bereziak. – Hiri-planeamenduaren exekuzioari heltzea. – Planeamendu berezia. – Hirien birgaitzeari, birsortzeari eta eraberritzeari buruzko 8/2013 Legearen eragina hiri-antolakuntzan: eraikinak birgaitzea, eta hiriak birsortzea eta eraberritzea. – Planeamenduaren prozedura eta izapidetzea. Planeamendua onartzearen ondorioak. Planeamendua berrikustea eta aldatzea. Praktikak.
Irakasleak	Santiago Peñalba (Arkitektoa).eta Mikel Iriondo (Abokatua. Donostiako Plan Orokorraren Bulegoa. Donostiako Udala) izango dira koordinatzaileak.

IV. modulua.– Hirigintza-Antolamendua Egikaritzea (Hirigintza-Kudeaketa) (84 ordu).	
Helburu orokorrak	1.– EAEko eta estatuko legedien arteko artikulazio-moduak aztertzea: eskubideak, betebeharrak eta lurzoruaren oinarrizko egoera juridikoak. Eragile publikoek eta pribatuek lurzoruan esku hartzeko dituzten moduak ulertzea. 2.– Eraikigarritasunaren balioa, salmenta-prezioak eta sustapenen kostuak ezagutzea. Urbanizazio-kargak, eta, oro har, hirigintza-balorazioak aztertzea. 3.– Jarduketa integratuak eta isolatuak, hirigintza-jarduketako planak, egikaritza-unitateak eta jarduketa-sistemak aztertzea. 4. Birpartzelatze bat egiteko aukera izatea.
Ikasleen helburuak	a) Hirigintza-kudeaketaren konplexutasunaz jabetzea. b) Hiriak kudeatzeko moduen azterketa garatzea, bai eta Administrazioak eta sektore pribatuak hiri-esparruan eta udalerriaren lurretan dituzten a. esku-hartzeena ere. c) Birpartzelazioak ulertzeko eta gauzatzeko abilezia lortzea. d) Hirigintza-balorazioa zer den jakitea, hirigintza-kudeaketan duen eragina dela eta.
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	Ikasleek lortu beharreko gaitasunak: 1.– Hirigintza-proiektuak aztertzeko gaitasuna, kudeaketaren esparruan. 2.– Hiri-kudeaketan baliatutako metodoak bere egiteko eta aztertzeko gaitasuna. 3.– Kontzeptu berrietara moldatzeko gaitasuna, hirigintzaren kudeaketaren esparruan.

IV. modulua.– Hirigintza-Antolamendua Egikaritzea (Hirigintza-Kudeaketa) (84 ordu).	
Programa	– Kalifikazioa, ordenazioa estruktural eta xehakatua, sistema orokorrak eta tokikoak. Lurzoruaren jabetzako eskubideen eta betebeharren araubidea. 2/2006 Legearen eta 2/2008 Lurzoruaren Legearen testu bateginaren alderaketa. Hirien birgaitzeari, birsortzeari eta eraberritzeari buruzko 8/2013 Legeak txertatutako berrikuntzen aipamen berezia. – Antolamendu-, programazio- eta egikaritze-eremuak. Dotazioen adskripzioa. Egikaritze-modalitateak: jarduera integratuak eta integratu gabeak. – Eraikitzeko eskubidea. – Eraikigarritasunaren balioa. – Eraikigarritasun haztatua. Haztapen-koefizienteak. – Batez besteko eraikigarritasuna. – Eraikuntzaren balioa. – Urbanizazio-kargak. – Jarduera isolatu eta integratuak. – Dotazio-jarduerak. – Hirigintza-jarduerako programa. – Planeamendua modu integratuan exekutatzeko jardunbideak (Pribatuak: hitzarmenak eta eragile urbanizatzaileak. Publikoak: lankidetza eta nahitaezko desjabetzea). – Exekuzio- edo egikaritze-unitateak mugatzea. – Birpartzelatzeak. – Kudeaketa-sistemak. – Sistema orokorren eta lurzoru-ondare publikoaren problematika. – Balorazio-araudiak. Egungo egoera. – Hirigintzaren eta Jabetza Erregistroaren arteko elkarrekintza. – Antolamendu egokitu gabea. – Hirigintza-hitzarmenak. – Praktikak.
Irakasleak	Jose Ignacio Tejerina González (Abokatua. Hirigintza-plangintzako zerbitzuburua. Barakaldoko udala), Antón Aguirregoitia Arechavaleta (Arkitektoa. Profesional liberala), David Rebollo (Donostiako Hirigintzako zuzendaria) eta Pilar Ochoa Gómez (Abokatua. Profesional liberala) izango dira koordinatzaileak.

V. modulua.– Hirigintza-Antolamenduaren Bermea eta Babesa (Hirigintza-Diziplina) (64 ordu).	
Helburu orokorrak	1.– Hirigintza-legedia betearazteko Herri Administrazioak dituen ahalmenak eta mekanismoak ezagutzea: prebentziozkoak (baimenak, lizentziak, ardurapeko aitorpenak eta aurretiazko komunikazioak) eta zuzentzaileak edo osatzekoak (leheneratzeko eta zehatzeko ahalmenak). 2.– Hirigintza-diziplinaren arloan Administrazioaren jardunaren aurrean errekurtsoak jartzeko sistema eta jarduteko moduak aztertu eta erabiltzea. 3.– Administrazioak hirigintzaren alorrean duen funtzionamendu ohikoaren edo ez-ohikoaren zeharkako efektuak aztertzea: ondare-erantzukizuneko araubidea.
Ikasleen helburuak	a) Hirigintza-diziplinaren araubidea aztertzea eta baliatzea, zigorrak ezartzeari dagokionez zein lehengoratzeari dagokionez. b) Herri-administrazioak partikularren hirigintza-jardunean esku-hartzeko formulak ezagutzea, bai eta esparru horretan aldi berean eragiten duten arauek eta baimenek dituzten ondorioak ere. c) Botere publikoen jardunari erantzun judizialak eta administratiboak emateko tresnen multzoa aztertzea eta aplikatzea, kalteak ordaintzekoak soilik direnak barne.
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	1.– Hirigintza-diziplinako administrazio-alderdiak aztertzeko gaitasuna. 2.– Hirigintzan planteatutako administrazio-arazoak identifikatzeko gaitasuna, bai eta aplikagarri den araudia identifikatzekoa eta beste irtenbide batzuk ematekoa ere.

V. modulua.– Hirigintza-Antolamenduaren Bermea eta Babesa (Hirigintza-Diziplina) (64 ordu).	
Programa	– Hirigintza-lizentzien araubide juridikoa: ezaugarriak, prozedura. – Hirigintza-lizentzien eta ingurumen-baimenen araubide juridikoa. Jarduera-lizentziak. IPPC. Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa. – Estatuko jabariaren araubidea eta sektoreko mugapenak. – Eraikitzeko betebeharra eta nahitaez eraikitzeko araubidea. – Lurzoruari, eraikinei eta hiri-ondareari eusteko betebeharra: exekuzio-aginduak eta eraikinen ebaluazio-txostenak. – Aurriaren araubide juridikoa: kasuak, prozedurak eta irtenbideak. – Hirigintza-legezkotasunaren babesa. Hirigintza-ikuskapena. Legezkotasuna berrezartzea. Zehapen-araubidea. Eraikinaren ebaluazioa txostena. – hirigintzako aurri araubide jurikikoa. – Hirigintzako legezkotasuna babestea. –legezkotasuna berrezartzea–. Diziplina-erantzukizuna. – Hirigintzako hitzarmenen araudia. – Hirigintza-jardun baten ondoriozko ondare-erantzukizuna. – administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren. – Hirigintza zuzenbidea eta Jabetza Erregistroa. – Praktikak
Irakasleak	Pilar Ochoa Gómez (Abokatua. Profesional liberala) izango da koordinatzailea.

VI. modulua.– Lanbidean Jarduteko Proiektua (48 ordu)	
Helburu orokorrak	1.– Planeamendu edo antolamendu orokor bat aztertzea. Egiturazko planeamendua egitea. Hiri-ingurune osoa eta antolamendu-proposamena aztertzea. Lurraldearen egitura orokorra eta organikoa ezartzea. Lurzoruaren sailkapena finkatzea. 2.– Planeamendu xehakatua egiteko ariketa bat egitea, dagozkion estandarrak ezarriz. 3.–Aztertutako udalerria birpartzelatzeko proiektu bat egitea.
Ikasleen helburuak	Ikasleen helburuak: a. Hirigintza-antolakuntzaren eta -kudeaketaren aplikazio praktikoa ezagutzea.
Ikasleek lortu beharreko gaitasunak	1.– Taldean lan egiteko gai izatea. 2.– Hirigintza-planeamenduaren eta -kudeaketaren ordezko planteamenduak proposatzeko gaitasuna.
Programa	EAEko udalerri bati buruzko simulazio profesionaleko proiektu bat egingo da, talde-lanean, eta, horren bidez, hirigintza-arloko gai bati buruzko azterketa sakona egingo da, bai eta plangintzan, kudeaketan eta hirigintza-arloan dituen ondorioak aztertu ere.
Irakasleak	Irakasleak: Bilbon, Jesús M.ª Erquicia Olaciregui (Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko zerbitzu-burua), Jose Ignacio Tejerina (Barakaldoko Udaleko Ietradua) eta Antón Agirregoitia (Arkitektoa) izango dira koordinatzaileak, eta, Donostian, Mikel Iriondo (Donostiako Plan Orokorraren Bulekoko zuzendarikidea).

Seigarrena.– Metodologia. Ikastaroaren balorazioa. Ebaluazioa. Moduluak aprobetxatu izanaren ziurtagiria. Hirigintzako diploma.

1.– Metodologia.

Aurrez aurreko eskolak dira, eta irakasleen eta ikasleen partaidetza aktiboa beharko dute. Azalpen praktikoak emango dira, adibide errealetan oinarrituak.

2.– Ikastaroaren balorazioa.

Ikasleen asebetetze-inkesta eta irakasleen balorazio-inkesta.

3.– Moduluen ebaluazioa.

